

Lerroak denboran [Saimendi]

Saimendiko mendixka da bide honetako beste begiratokietako bat, orain, azken zatian. Hemendik duela zortzi hamarkada baino gehiago eremu tragiko bihurtu ziren muino guztiak ikusten dira, hil ala bizikoak bihurtu zirenak: Inerbas, Eribegana, Menea, Txaragana... Lur-mutur bakoitzak kostu ikaragarria izan zuen giza bizitzetan, azken emaitza, gainera, baikorregia izan gabe bi bandoentzat.

1936ko abenduaren 18an, kontraeraso frankista errealitate irmoa eta mehatxagarria zen. Francok tropa kolonialak bidali zituen Arabara eraso errepublikarrari behin betiko amaiera emateko asmoz eta, horrela, indar erakustaldi esanguratsu bat egiteko. Afrikatik zetozen tropa hauek benetako zirrara eragiten zuten eskualdean, ez bakarrik populazio zibila eta tropa etsaiaren artean, baita matxinatutako armadaren baitan bertan ere. Flandriako Batailoiko borrokalaria zigoitiar batek, Gasteizko kuartel ospetsuan armada errebeldek zuen kontingentekoak, honako hau zioen:

«Guretzako modu arraroan hedatzen eta jaurtitzen diren erregularrak aurrera egiten hasten dira guretzat ere arraroak diren oihu eginez. Gorrien parapetoetara jaurtitzen dira lehoiak bezala eta tiro zutik egiten diete.»

Gerra egiteko beste modu horren ikuspegiak, basakeria handiz eta eskrupulurik gabe, testiguarengan arrasto handia uzten du. Izan ere, mairuak eta Afrikatik zetorren panoplia gerlari guztia, Gerra Zibilaren geografia osoan zehar zurrumurru eta beldur iturri izan ziren.

Gainera, paradoxikoa zen Franco Jeneralaren "gurutzada" hura jada dekadentea zen Espainiako Inperioaren mugetan bildutako musulmanek egitea.

Gaur egun, Saimendin, hegoaldeko hegaletik sigi-saga doazen hainbat lubaki lerro ikusten dira. Garai bateko defentsa-lerro frankista lotzen duen lerro bakarra goitentsioarena da. Azken batean, benetako garailea modernizazioa izan da borroka osoan.

Josu Santamarina Otaola

MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK ZIGOITIAN

(2019/02/07) FRONTE FRANKISTA (1936-1937)